

EROSKI -K FRANKIZIA ERAKO SUPERMERTATU BAT IREKI DU GAUR BILBON

- **Saltoki berria Zurekin ereduakoa da, EROSKI gaur egun bere denda sarean bultzatzen ari den eredu komertzialekoa**
- **Denda berria irekita, sei lanpostu sortu dira.**
- **Kooperatiba 1.600 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da lanean, eta 600 milioi euroren erosketak egiten dizkie**

Bilbo, 2017ko maiatzaren 4a.- [EROSKI](#)k frankizia erako supermerkatu bat inauguratu du gaur Bilbon, eta EROSKI/City du izena. Iturriondo plazako 1.ean dago, Zurbaranbarrin. Gaur egun, EROSKI k Zurekin denda eredu bultzatzen dihardu, eta eredu horretakoa da supermerkatu berria ere. Hona eredu horren ezaugarriak: elikagai freskoei garrantzia ematea, bezeroei tratu pertsonala ematea, tokiko produktuen aldeko apustu handia egitea eta elikadura osasungarria sustatzea. Saltokia irekita, sei lanpostu sortu dira.

Supermerkatuak 3.500 produktu eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleenak, eta 300 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, mota horretako sorta zabalduko baita. Saltokiak ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpenaren aldeko apustu hori EROSKI Klubaren fidelizazio programan islatzen da ondoena; Bizkaian, 400.000 bazkide inguru ditu. EROSKI Klubak %15eko deskontuak ere izaten ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, eta, gainera, promozio eta eskaintza eksklusiboak eta Travel Club programaren abantaila guztiak dakartza.

600 milioi eurotik gorako erosketak

EROSKIren politika komertzialean, ahalik eta gehiena indartu nahi dira tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta elikagaien industria eta gizartea eta ekonomia oro har indartzeko. Alde horretatik, kooperatibak Euskal Autonomia Erkidegoko 10.000 produktu baino gehiago merkaturatzen ditu.

Sasoiko elikagai freskoek eta tokiko produktuek leku berezia hartzen dute EROSKIren saltokietan Zurekin denda eredu berriaren bitartez. EROSKI pixkanaka ari da hedatzen eredu hori bere saltokietan, eta, hain zuzen, Bilbon gaur inauguratu

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



den supermerkatua ere eredu horretakoa da. 1.600 euskal hornitzaileekin baino gehiagorekin aritzen da kooperatiba lanean, eta 600 milioi euroren erosketak egiten dizkie urte osoan, horretatik %60 nekazaritzako elikagaien sektoreari.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)